

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Prest da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitopenen Nafarroako Ogasunaren simulagailua

2019ko udaberrian zehar aurkeztuko den aitopenen emaitzari buruzko orientabideak ematen dituen tresna da

Asteazkena, 2018.eko abenduak 5

Nafarroako Zerga Ogasunak aktibatu du jada pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) [simulagailu](#) ofiziala, 2018ko diru-sarrena. Ofizialki 2019ko udaberrian zehar aurkeztuko den aitopenen emaitzari buruzko orientabidea ematen duen tresna da eta urtea bukatu baino lehen erabaki fiskalak hartzea errazten du, bereziki kenkariei etekina ateratzen dieten zergadunen kasuan edo egoera ekonomikoaren aldaketak direla eta zerga-ordainketaren estimazioa nahi dutenen kasuan. Simulagailuaren erabilera anonimoa da eta izaera informatiboa baizik ez du.

Aplikaziora sartzeko ez da inolako baimenik behar. Behin 2018ko diru-sarrerei dagozkien datuak sartuta, sistemak errentaren aitopenen emaitzaren zenbatespen bat egiten du, 2018an zehar indarrean izan den eta egun argitaratua dagoen eta zerga-ekitaldi honetarako indarreko araudia aintzat hartuta. Proba horrekin posible izango da aitopenen emaitza aurreikustea, nahiz eta zenbatespen horrek ez dituen ez zergaduna ez Ogasuna lotesten, simulagailuak ez baititu sartutako datuak biltegitratzen.

Simulagailuak orientabide izan nahi du zergadunarentzat eta inola ere ez du berau aske uzten aitopen formala aurkeztetik, behin 2019ko bigarren hiruhilekoko kanpaina irekitzen denean. 2017ko abenduan 9.000 sarbide baino gehiago erregistratu ziren aplikazioan errentaren aitopenen zenbatespen bat lortzeko helburuarekin.